



ALKIZAKO UDALA

**UDALBATZARRAK 2021eko AZAROAREN 30ean EGINDAKO OHIKO
SBILKURAREN AKTA**

2021eko azaroaren 30ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Unai Sorarrain Urruzola
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Concepcion Soria Legua

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Gillermo Jesus Otegi Zubillaga
eta Shrabani Aranzabe Pita

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ **2021eko urriaren 26an egindako ohiko bilkuraren akta.**
- ✓ **2021eko azaroaren 11an egindako ez ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **Kultur etxearen beheko solairuan kokatua dagoen etxebizitza alokairuan emateko esleipena, hala bada.**
5. **2002an Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren berrikuntzaren onespena, hala bada.**
6. **Alkizako udalerrian hondakin uren araztegiaren mantentze eta garbiketa zerbitzua, prozedura ireki erraztuaren bidez kontratatzeko espedientea onestea, hala bada.**
7. **Beste batzuk.**
8. **Moziok, erreguak eta galderak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA

LEHEN PUNTUA

AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2021eko urriaren 26ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2021eko azaroaren 11ko ez ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 185/2021etik 219/2021ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ez dira aurkezten.

LAUGARREN PUNTUA

KULTUR ETXEAREN BEHEKO SOLAIRUAN KOKATUA DAGOEN ETXEBIZITZA ALOKAIKIRUAN EMATEKO ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik 2021eko urriaren 26an egindako Udalbatzarrean Erretore etxeko beheko solairuan kokatua dagoen etxebizitza alokairuan esleitzeko dagokion deialdia eta oinarriak onestu zirela.

Ikusita, izena emateko garaian hiru eskaera egon zirela:

-Z.M.

-M.E.M.

-A.A.T.

Ikusita, oinarrietan jasotzen ziren baldintzak eta esleipena egiteko puntuak, puntuaketa altuena lortu duena Z.M. andrearena izan dela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA

LEHENENGOA.- Erretore Etxeko behe oinean kokatuta dagoen etxebizitza, Z.M. andreari, alokairuan esleitzea, hilean 425,00 euro ordaindu beharko dituelarik.

BIGARRENAGOA.- Erretore Etxeko behe oinean kokatuta dagoen etxebizitza Z.M.andreari, alokairuan esleitzea, bere iraupena 1 urtetakoa izango delarik.

HIRUGARRENA.- Z.M. andreari jakinarazi, Udalak prestatutako kontratua sinatu beharko duela. Udalaren izenean, Alkateak sinatzeko baimena ematen delarik.

LAUGARRENA.-Akordio hauen berri interesdunei ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2002AN ADUNA, ALKIZA, ASTEASU ETA LARRAULGO HERRIEN ARTEAN EROSI ZEN ESZENATOKI MUGIKORRAREN ERABILPENA KUDEATZEKO HITZARMENAREN BERRIKUNTZAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusita 2002 urtean Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren berrikuntza batzuk proposatu direla, hitzarmen berrikuntzaren zirriborroa aztertu duelarik Alkizako Udalak.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2002an Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo herrien artean erosi zen eszenatoki mugikorraren erabilpena kudeatzeko hitzarmenaren berrikuntza onestea. Ondorengoa diolarik:

“2002an ADUNA, ALKIZA, ASTEASU ETA LARRAULGO HERRIEN ARTEAN EROSI ZEN ESZENATOKI MUGIKORRAREN ERABILPENA KUDEATZEKO HITZARMENAREN BERRIKUNTZA

Asteasu, 2021 eko urriaren 4 a

Aduna, Alkiza, Asteasu eta Larraulgo udal ordezkariak ahalmen osoa aitortzen diote elkarri zuzenbidearen arabera hitzarmen hau sinatzeko.

AZALPENA



ALKIZAKO UDALA

1.- Aipatu udalerriek eszenatoki mugikor bat erosteko eta bera kudeatzeko hitzarmen bat sinatu zuten baina bidean hainbat zalantza sortu dira, batik bat hitzarmen hartan jaso ziren klausula batzuk betetzea ezinezkoa gertatu delako. Honen ondorioz, lau udalerriko alkateok bildu gera Hitzarmenaren atal batzuk berritzeko asmoz.

KLAUSULAK

LEHENA.- Hitzarmenaren helburua

Hitzarmen honen helburua da goian adierazitako Udalen artean 2002 an erosi zen eszenatoki mugikorraren erabileraren kudeaketa arauak berri eta eguneratzea.

BIGARRENA.- Eszenatokiaren ezaugarriak. Klausula hau bere horretan mantentzen da. 2020 an berrikuntza batzuk izan ditu, ezaugarriak aldatu gabe (egurrak eta toloa berritzea) eta lau udalen artean ordaindu ziren, hitzarmen honen hirugarren klausulan jasotako proportzioan.

HIRUGARRENA.- Jabetza. Klausula hau bere horretan mantentzen da.

Eszenatokiaren jabetza lau Udalena izango da "pro indiviso" moduan, behin bakoitzari dagokion ordainketa egindakoan.

Eszenatokiaren aurrekontua 23.982,23 eurotakoa da, eta ordainketa udal bakoitzak modu honetan bideratu beharko luke:

Koste osoaren %50 a Udal guztiek berdin ordaindu beharko lukete. Beste %50 a biztanleagoaren arabera udal guztien biztanleriak %100 a osatzen badu, Udal bakoitzak dituen biztanleen proportzioan.

Kalkulu hau bera erabiliko da eszenatokiaren mantentzeak, ezbeharrak (lapurreta, puskatzea) ea... sorrarazitako gastu bereziak ordaintzeko orduan.

Bestalde, berdin, inolako diru-sarrerarik sortzen badu edota diru-laguntzarik jasotzen bada.

LAUGARRENA.- Jasotzeko lekua. Idazkera berria :

Asteasuko Udalaren esku geldituko da eszenatokiaren biltokia, berak baitu horretarako leku egokia.

BOSGARRENA.- Kudeaketa arautegia.

A) Kudeaketaren ardura Asteasuko Udalak hartzen du

B) Erabiltzaile bakoitzak 60 euro ordaindu beharko ditu, eszenatokiaren gastu arruntetarako, Asteasuko Udalak ezik, kudeaketaren gain egiten delako.

C) Erabilpena printzipioz, jabe diren herriek soilik eramango dute. Beste udalek eszenatokia eskatzen badute, jabe diren udaletako arduradun guztien onespena telefonoz lortu beharko luke kudeaketaren arduradunak, dagokion baldintzatan baimena emateko. Udala ez diren beste entitate batek eskatuko balu, beti bere herriko udalaren izenean egin beharko du eskaera idatziz.



ALKIZAKO UDALA

- D) Muntaia eta desmuntaia honela egingo da : herri bakoitzak bere brigadako langile bat izendatuko du. Horrela 4 pertsonako talde bat osatuko da eta horiek izango dira lan horien arduradunak eta eszenatokia behar denero lau herri horietara joango dira.
- E) Jabe ez diren beste udalei eszenatokia uztea onesten bada, honako baldintzetan egingo da:
- Erabiltze-tasa ordaindu beharko dute : 300 euro
 - Eszenatokiaren erabilpen egokia bermatzearren, 300 euroko fidantza jarri beharko dute, eraman aurretik.
 - Eszenatokiaren eskaera egiten dutenean arduradun bat izendatu beharko dute. Pertsona hori arduratuko da eszenatokia muntatu eta desmuntatzeaz eta modu egokian bueltatzeaz ere.
 - Eszenatokia ez bada modu egokian jasota bueltatzen, Asteasuko udalak fidantza erabiliko du, bere brigadak hura ondo jartzen pasatzen dituzten orduak estaltzeko.
- F) Urte amaieran eszenatokiaren erabileragatik jasotzen diren tasen kopuruaren %25 a Asteasuko udalari emango zaio, kudeaketa lanen ordainketa gisa.
- G) Printzipioz herri bakoitzeko festa eta aste kulturalak errespetatu beharko lirake bere erabilpenari dagokionez, honako hau izanik beren egutegia:
Aduna: Abuztuko Ama Birjinetako jaiak
Alkiza: Maria Birjinaren jaiak, irailaren hasiera
Asteasu: S. Pedrotako jaiak
Larraul: San Esteban eta San Bartolome jaiak

Aipatu data hauetaz gain beste eskaerarik balego, beti ere lehentasuna lehendabizi egindakoak izango luke bi eskaera batera suertatuko balira.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honetan adierazitako punturen bat ez betetzeak hitzarmen hau eten eta berrikusteko aukera emango du.

ZAZPIGARRENA.- Norbaitek hitzarmen honetatik kanpo gelditu nahi izanez gero, honen berri gutxienez ere hiru hilabeteko aurrerapenez eman beharko luke eta bere ekarpena eta eskubideak galduko lituzke inolako kalte-ordainik gabe.

Beste aldeek hitzarmen hau berrikusi beharko lukete.

ZORTZIGARRENA.- Hitzarmen honek, sinatzen denetik izango ditu ondorioak eta lau parte hartzaileak behartuko ditu.

BEDERATZIGARRENA.- Hitzarmen honen izaera administratiboa litzateke eta bere interpretazioa eta garapena Herri Administrazioen artean egiten diren



ALKIZAKO UDALA

Lankidetzeta Hitzarmenetako ordenamendu juridiko administratiboak arautuko du.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen hau interpretatzeko eta betetzeko garaian sor daitezkeen arazoak Administrazioarekiko Auzien esparruak ezagutu beharko eta erabaki beharko ditu.

Eta dokumentu honetako klausuletan dauden zehaztapenekin ados daudela erakusteko izenpetu egiten dute ale laukoiztuan izenburuan adieraziko leku eta egunean.”

BIGARRENA: Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako alkatea ahalmentzea aipaturiko hitzarmena sina dezan.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALERRIAN HONDAKIN UREN ARAZTEGIAREN MANTENTZE ETA GARBIKETA ZERBITZUA, PROZEDURA IREKI ERRAZTUAREN BIDEZ KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONESTEA, HALA BADA

Kontuan hartuz, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako — 2017SPKL—, Alkatetza honek beharrezkotzat jotzen duela zerbitzuen administrazio-kontratu bat tramitatzea udalerrri honetako hondakin-urak tratatzeko estazioaren mantentze- eta garbiketa-lanak egiteko.

Udalaren Zerbitzu Teknikoen txostena ikusi da. Bertan, haren alderdi teknikoak eta jarduketa horren bideragarritasuna zehazten dira, eta lizitazioa arautuko duten Preskripzio Teknikoen Pleguak prestatzen dira.

Kontuan harturik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 308. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoa.

Ikusirik kreditu atxikipena egiteko konpromisoa, 2022. ekitaldiko 212.16600.01 aurrekontu aplikazioaren kontura, 17.000 eurokoa, hau da, tramitatu beharreko zerbitzuen kontratuaren balio zenbatetsia.

Ikusirik Udal honetako Idazkaritzak emandako txosten juridikoa.

Ikusirik kontratu hori arautuko duten administrazio klausula partikularren orriak onartu direla.

Ikusirik Udal honetako Kontu-hartzailetzak egindako fiskalizazioa.

Ikusirik, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017



ALKIZAKO UDALA

Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoarekin bat etorriz - 2017SPKARABERA, UdalbatzAREN Osoko Bilkura DELA KONTRATAZIO ORGANO ESKUDUNA.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Alkizako udalerriko hondakin uren araztegia mantendu eta garbitzeko zerbitzuen administrazio-kontratua prozedura ireki erraztuaren bidez kontratatzeko espediente onestea. Kontratuaren balio zenbatetsiari dagozkion 28.000,00 euroko zenbatekoa izango du bi urtetan. Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion 6.000,00 euro jasanaraziko zaizkio eta beste hiru urtez luza daiteke.

BIGARRENA.- 34.000,00 euroko gastua onartzea, Alkizako Udalaren gastuen aurrekontuko 212.166.00.01 aurrekontu-aplikazioaren kontura, 2022 eta 2023 ekitaldietarako.

HIRUGARRENA.- Zerbitzu-kontratu hau prozedura irekiaren bidez kontratatzeko Administrazio Klausula Berezien eta Baldintza Tekniko Partikularren Orriak onartzea.

LAUGARRENA.- Kontratu hau prozedura ireki erraztuaren bidez esleitzeko prozedurari hasiera ematea eta dagokion iragarkia Udal honen kontratatzailearen profilean argitaratzeko agindua ematea, hamabost egun naturaleko epean egoki iritzitako proposamenak aurkez daitezzen.

ZAZPIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

7.1. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BERE UDALERRIAN ENERGIA-KOMUNITATE BAT EZARTZEKO INTERESA AGERTU DUTEN GIPUZKOAKO UDALEN ARTEAN EZARTZEKO KONPROMISOAREN ONESPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 5.000 biztanletik beherako Gipuzkoako udalerrri guztietan tokiko energia-komunitateak (aurrerantzean, TEK) sortzea bultzatu nahi du, udalerriko estalki publikoetan ezarri beharreko eguzki-instalazio fotovoltaiko batetik edo batzuetatik datorren



ALKIZAKO UDALA

elektrizitatea sortzeko. Ekimen honen xedea da, halaber, udalerrri horietan ibilgailu elektrikoa kargatzeko gune bat edo gehiago instalatzea.

Dokumentu honetan, ekimenaren xedea gauzatzeko alde bakoitzak bete behar dituen baldintzak zehazten dira.

A) GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BETEBEHARRAK
(aurrerantzean, GFA)

1. Instalazioen diseinuaz eta egikaritzeaz arduratuko da (bai orube fotovoltaikoak, bai birkarga-puntuak), eta konpromisoa hartuko du obra horiek kontratatzekeo administrazioizapideak egiteko, hasten direnetik jasotzen diren arte, eta, era berean, obren zuzendaritza teknikoaren eta obrak zuzen eta erabat gauzatzeko behar diren izapide guztiak betetzearen ardura izango du. Horretarako, obren finantzaketa osoa bere gain hartuko du, eta, horretarako, behar diren diru-laguntzak eskatuko dizkio Energiaren Euskal Erakundeari, eta diru-laguntza horiek estaltzen ez dituzten zenbatekoak emateko konpromisoa hartuko du.

Eguzki-instalazio fotovoltaikoak "giltza eskuan" modalitatean egingo dira, honako hauek barne: egikaritze-proiektua edo memoria teknikoa, ekipoen eta materialen hornidura, instalazioa, administrazio-izapidetzea, martxan jartzea eta mantentze-kontratu bat, gutxienez lehen 5 urteetarako.

Kargatzeko guneak jartzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko lehen 5 urteetan, emakida publikoko lehiaketa bat egingo da. Lehiaketa horren bidez, enpresa esleipendunak gune horiek ustiatzeko eta mantentzeko konpromisoa hartuko du, eta gutxienez % 50eko deskontua eskainiko die gune horiek dauden udalerrietan bizi diren erabiltzaileei.

Obra-zuzendaritzaren kontratazioaren eta segurtasun- eta osasun-koordinazioaren kostua obra osoaren kostuan ere sartuko dira, eta, beraz, GFAk % 100ean hartuko ditu bere gain.

2. Behin eratuta, GFAk doan lagako dio eguzki-instalazio fotovoltaikoa TEKari, baldin eta horrek betetzen baditu iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari



ALKIZAKO UDALA

buruzko 2018/2001 (EB) Zuzentarauan eta energiaren arloko eta ekonomia suspertzeko beste eremu batzuetako neurriak onartzen dituen ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuan ezarritako baldintzak.

Gainera, TEKak honako hau bete beharko du:

- Erakunde autonomoa izatea, borondatezko parte-hartze irekian oinarritua, bazkideek kontrolatua, eta instalazioetatik 500 metro baino gutxiagora kokatuta egotea. Udalak TEKean parte hartzeko edo ez hartzeko aukera izango du, eta ezin izango du jarduera ekonomikoren bat egiten duen pertsona fisiko edo juridikorik parte hartu.

- Erakundearen helburu nagusia izango da bazkideei edo kideei edo jarduten duten tokiko guneei ingurumen-, ekonomia- edo gizarte-onurak ematea, irabazi finantzarioen ordez.

- Instalazio fotovoltaikoaren eragin-eremuko pobreziarekin edo ahultasun energetikoarekin lotutako irizpide espezifikoak jaso beharko ditu TEKak, baita generoikuspegia ere.

- Gutxienez 0,5 kW-ko ratioa ezartzen da TEKeko bazkide bakoitzeko.

3. GFAk udalarekin lankidetzan jardungo du udalerrri bakoitzean komunitatea dinamizatzeko, sustatzeko eta publizitatea egiteko, eta laguntza tekniko espezializatua eta energia-komunitateak eratzeke behar den aholkularitza juridikoa emango dizkio.

4. GFAk, Gipuzkoako herritarrei zuzendutako energia-informazio eta -aholkularitzako Argitu Programan, TEKetak bazkideentzako berriazko tailerrak sartuko ditu, pertsona horiek oro har energia-gaietan duten ezagutza areagotzeko eta beren energiarebetasunak areagotzeko, energia berriztagarria kolektiboki kontsumitzeaz gain, beren energia-faktura murrizteko gai izan daitezen, kontsumoak optimizatuz eta beren etxeetan energia aurrezteko eta eraginkortasunerako neurriak ezarriz.

5. Instalatzen direnetik 5 urte igaro ondoren, kargatzeko puntuak doan itzuliko zaizkie udalei, eta haiek erabakiko dute une horretatik aurrera nola kudeatu eta ustiatu.



ALKIZAKO UDALA

B) UDALERRIEN BETEBEHARRAK

1. GFari doan lagako dio udal-estalkien erabilera – Horietan jarriko dira eguzkiinstalazioak –, TEKa eratu arte behar den denboran, eta 5 urtez lurzoru publikoaren erabilera, non kargatzeko puntuak kokatuko diren.

TEKa eratu ondoren, hari laga beharko dio udal-estalkien erabilera, gutxienez 25 urtez.

2. Beharrezkoak diren udal-baimen eta -baimenak lortu beharko dituzte, eta baimen eta baimen horien kostua beren gain hartu beharko dute; halaber, obrak egiten diren bitartean, eraikinera sartzen utzi beharko diete kontratista esleipendunari eta GFAko teknikariei.

3. TEKen sorreran aktiboki parte hartuko dute, bizilagunen artean dinamizazio-, sustapen- eta publizitate-jardueretan lagunduz eta horiek sortzen inplikatur, eta aktiboki parte hartu ahal izango dute beste edozein bazkide bezala.

4. Edozein arrazoiengatik ezin bada TEKa sortu, udalaren esku geratuko dira udalerrri batean aurreikusitako eguzki-instalazio fotovoltaikoak edo fotovoltaikoak, eta udal eraikin edo instalazioen autokontsumorako modalitatean soilik erabiliko direla ziurtatu beharko du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere Udalerrian energia-komunitate bat ezartzeko interesa agertu duten Gipuzkoako udalen artean ezartzeko konpromisoaren onespena.

ZORTZIGARREN PUNTUA

MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

8.1. AZAROAK 25: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO EGUNA. ALKIZAKO UDALAREN ADIERAZPENA



ALKIZAKO UDALA

Ikusita Udal taldeak aurkezturiko adierazpena, non ondorengoa dioen:

Azaroaren 25a emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko eguna dugu. Indarkeria zuzenean emakumeengan erabiltzen da, baina baita haien gertuko pertsona maitatuengana ere, min handiagoa sortzeko modu gisa. Kalkuluen arabera, bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik indarkeria jasaten duten EAeko hamar emakumetik seik seme-alaba adingabeak dituzte, eta horiek ere biktima bihurtzen dira.

Indarkeria bikarioa esaten zaio emakumeari, hirugarren pertsonak baliatuz, kalte psikologiko handiena eta larriena eragiteko egiten zaion indarkeria motari, zeinak ankerkeria-maila gorena lortzen duen haien erailketarekin (seme-alabak, ama, aita, egungo bikotekidea, etab.). Istanbulgo Hitzarmenean ezarritakoa aplikatuz, kasu horiek ere genero-indarkeriaren parte gisa ulertzen dira, semealabei egindako kalteak erasotzaileek emakumeei tratu txarrak transmititzeko tresna bihurtzen diren heinean.

Erakundeok indarkeria horri aurre egiteko erantzukizuna dugu, horregatik, Alkizako Udalak honako konpromiso hauek hartu nahi ditu:

1- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautematen eta eskuhartze

goiztiarra egiten laguntzea, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntza-, osasun- eta polizia-agentek, etab.), eta emakumeek beren ardurapean dituzten adingabeekin eta kaltetutako beste pertsona batzuekin behar dituzten beharrei eta baldintzei erantzutea.

2- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak babesteko eta esku hartzeko prozesuak hobetzea, beren eskumenen esparruan.

3- Toki-administrazioako langileak berdintasunari buruzko prestakuntza jaso dezaten bultzatzea.

4- Genero-berdintasunean oinarritutako gizarte bat eraikitzeko lan egitea herriko eragileekin elkarlanean.

Bide batez, herritarrei gogorarazi nahi diegu indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabideen sarea eskuragarri dagoela, besteak beste, -



ALKIZAKO UDALA

Genero-indakeria sufritzen duten emakumeak artatzeko Jaurlaritzaren telefono zenbakia: 900 840 111.

- ZEUK ESAN (116 111) haur eta nerabeentzako telefono eta online orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzua.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu azaroaren 25ean bat egin dezaten emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta eskualdean deitutako mobilizazioekin.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal Taldeak aurkezturiko "Azaroak 25: Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko eguna", Alkizako udalaren adierazpena bere osotasunean onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako herritarrei ematea.

8.2. EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA. Alkizako Udalaren adierazpena

Ikusita Udal taldeak aurkezturiko EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, Alkizako udalaren adierazpena, non ondorengoa dioen:

"Tentuz, baina ateratzen ari gara, azkenean, beltzenetik argira. Berreskuratzen hasi gara gutariko bakoitzaren eta elkarrekin osatzen dugun herriaren eta gizartearen bizitza erakargarri ez ezik, jasangarri ere egiten duena: zuzeneko harremanak; elkartzeko ohiturak, aukerak eta guneak; osatzen gaituzten besteengana biltzeko joera. Eta, horrekin batera, ezinbestekoa dugun jarduera ekonomikoaren hari eta sareak berriz ere indartzen ari gara, pandemiaren aurretiko tokira eta, inola ere ahal balitz, hobera iristeko itxaropenez.

Eta erabaki sendo bat dugu gidari: ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu.

Ezta euskara ere. Inola ere ez.



ALKIZAKO UDALA

Gurekin batera egin dio euskarak pandemiari aurre, eta gurekin irten behar du garaile. Izan ere, aro berrian, gure eta geure gizartearen zaurgarritasunaren jakitun egin gaituen egoera larriaren ondoren, harreman eta komunikazio molde, ohitura eta bide berriak sortzen ari dira, eta are berriagoak eta harrigarriagoak sortuko dira aurrerantzean.

Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eransten dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barnerratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion tokia hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Euskara, euskal hiztunen komunitatearen jarrera proaktiboari esker, IKTek hizkuntza gutxituen hedapena eta indartzerako ekarri duten erronka handiari aurre egiten ari zaio, komunikazio eta informazioaren teknologien sareetan. Badu tokirik. Baliagarria da. Eta zinez zaila du hizkuntza ozeano erraldoian horrelakorik lortzea.

Eredugarria da alor horretan ere euskal hiztun komunitateak egin duen eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikoak eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetzak publiko-pribatuaren eskutik lan egiten badugu, erronkaren neurriak ez gaituela beldurtu behar. Gai garelako argiro erakusten ari garelako, adibidez hezkuntzaren munduan, hedabideenean, osasungintzarenean, eremu sozioekonomikoan, administrazioarenean eta beste hainbat eta hainbatetan urrats ausartak eman behar direla eta ematen ari garela euskal hiztunen eskubideen gauzapean errealean.

Eta horietan guztietan aurrera egin beharra dago, jakina, aurrerapauso sendoagoak emanez, jarraikortasunez, etengabeko berrikuntzaren bidetik eta guztion konpromisotik. Baina pandemiaren osteko aro berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formalekoa landu beharra dago, behar besteko lehentasunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formaletik lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzearen esanahietako bat. Ezin dizkiogulako euskarari



ALKIZAKO UDALA

ukatu gorputz eta espirituaren atsedean eta gozamenari lotzen zaizkion eremu horiek. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da erakundeok egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarriz eta eredugarritasuna erakutsiz.

Euskararen bizi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilerak jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena.

Aisialdi eta kirolaren eremuek badituzte, bestalde, berezko ezaugarri baliotsuak hizkuntza erabiltzeko ohituren aldaketari dagokienez, eta askotariko antolakuntzarako joera dute (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak...). Nekez bilatuko genuke esparru egokiagorik gazteengana iristeko, euskararen erabilera ez formalari berebiziko bulkada emateko, partaide gazte zein ez hain gazteengan euskararantz urrats eraginkorra egiteko gogoia aktibatuz. Horra, beraz, eginkizuna.

Aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garen eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera eremu berrietarako euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko.

Guztion esku dago.

Euskara prest dugu; gure gizartea, gogotsu; gure herria, erabakia hartuta. Abia gaitezen.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Udal Taldeak aurkezturiko “EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, Alkizako udalaren adierazpena” bere osotasunean onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Alkizako herritarrei ematea.



ALKIZAKO UDALA

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.00etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAIZKARIAK
[Handwritten signature]